

ETXEAREN ASANBLADA OROKORRA  
EMAKUMEEN ETXEAREN 10. HAUSNARKETA JARDUNALDIA

**BILERAREN AKTA ZB 13/2011**

Eguna: 2011ko otsailaren 17a  
Ordua: 18:00  
Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea

**BILDUTA:**

- Intxaurrondo Berri (1 ordezkari)
- Berdintasun zinegotzigoa (1)
- Berdintasun zinegotzia (1)
- Emakume Bananduen Elkarte (1)
- Garraldi eta Emakumeak eta Hiriaren Foroa (1)
- Lagunak Elkarte (1)
- EHUko Kontseilu Soziala (1)
- Emakumeen Etxea Elkarte (1)
- Plazandreok (1)
- etxeko andreen elkarte (2)
- etxeko koordinatzailea (1)
- Berdintasun Saileko berdintasun teknikaria (1)

Bilera honetan gai bakar bat landu da, etxearen izenaren aukeraketa. Ppt baten bidez behin betiko izenaren aukeraketaren datak azaldu dira , baita logoaren lehiaketaren oinarriak ere.

Gaurko bilera gehien gustatzen zaizkigun 3 izenak aukeratuko dira eta bigarren bilera batean, hurrengo astean, behin betikoa aukeratuko da logoaren lehiaketaren oinarriekin batera.

Proposatutako izenen eztabaida hasten da, bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu eta gehien gustatzen zaion izena aukeratzen du.

Eztabaida eta gero 4 izen aukeratzen dira:

- SOROA, emakumeen elkargunea.
- SOROA, emakumeen etxea.
- Emakumeen etxea.
- Emakumeen SOROA.

Izen bakoitzarekin erabili diren arrazoiak hurrengoak izan dira:

- **SOROA, emakumeen elkargunea**

Aurreko izena mantentzea garrantzitsua iruditzen da, nortasuna ematen dio eta oso esan nahi interesgarriak ditu eta emakumeen elkargunea gehitzea esaten da, etxearen ideiarekin hausteko, ze etxeak historikoki espazio pribatuari erreferentzia egiten dio eta nahiz eta beste etxe batzuetan hitz hau erabili den, zaharkitua dago eta gaur egungo errealitatea ez du islatzen.

- **SOROA, emakumeen etxea**

Aukera hau ere gustukoa da, ze SOROA izena mantentzen da eta etxearen izena ere, horrek nortasun handia ematen diolako. Bien arteko nahasketa bat aukera egokiena da.

- **Emakumeen etxea**

Izena mantentzea garrantzitsua da, ibilbide historikoa duelako, gainera ibilbide honek ez dago zaharkitua, ze nahiz eta Donostian denbora asko daramagun etxeari buruz hitz egiten azken urteotan sakondu dugu eta beti izen hori erabili dugu. Etxeak nortasun handia ematen dio eta indar handia du izen moduan. Gainera erabilpena handia dauka, jendeak horrela ezagutzen duelako eta garrantzitsua da erabilpen hori mantentzea ze Donostia mailan horrela ezagutzen delako.

- **Emakumeen SOROA**

Nahiz eta proposamenetan ez zegoen izen hau bileran atera da, eta orokorrean gustukoa da. Indar handia du, esanahia dela eta. Horrela emakumeen izena eta SOROA izena mantentzen dira.

Hurrengo bileran 4 izen hauetatik behin betikoa erabakiko dela adosten da, eta logoaren lehiaketaren oinarriak landuko dira.